



**ERRETIRO PARTZIALA ETA TXANDAKAKO KONTRATUA ABIAN JARTZEKO OINARRIAK
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LAN-LEGEPEKO IRAKASLEEN
ETA HEZKUNTZA-PERTSONALAREN KOLEKTIBOAN.**

1.- HELBURUA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erretiro partzialeko edo (zati batean jubilatutako langileen ordezkapena egiteko) txandakako kontratuak egin ahal izango ditu Hezkuntza Saileko lan-legepeko Irakasleen eta Hezkuntza-pertsonalaren hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaien langileen lan-esparruan.

2.- BALDINTZAK

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatuko diren baldintzetan. Dena den, erretiro partziala eskatzen duen langileak txandakako kontratua erreleboko langileari eman aurretik uko egin ahal izango dio bere eskaerari.

Erretiro partziala hartzen duen langileak, gutxienez, jardunaldi osoko kontratua eduki eta 2011ko abuztuaren 31ean 60 urte eta 6 hilabete izan beharko ditu – edo 2011ko abenduaren 31ra bitartean bete- eta kotizaziopeko pentsioa eragiteko eskatzen diren baldintzak bete beharko ditu.

Gutxienerako kotizazioa: 30 urtekoa (kontutan izan gabe aparteko ordainsariei dagokiona)

Aintzitasuna enpresan: 6 urtekoa jardun osoan, inongo etekinik gabe.

Interesatuak arau erregulatuzaileei eta lan-bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandakoa, aurkeztu beharko du, erretiro partzialaren eskubidea duen zehazteko eta haren kotizaziopeko pentsioa kalkulatzeko. Erretiro-pentsioa Gizarte Segurantzako Erakunde kudeatzailearen aurrean eskatzearen ondorioetarako, Administrazioak txandakako kontratuaren kopia emango dio langileari.

3.- LANALDIAREN MURRIZKETA

Erretiro partziala hartzen duen langileak % 75eko lanaldiaren murrizketa bat eskatu ahal izango du. Errelebolariaren dedikazioa % 100ekoa izango da.

Egoera hasi aurretik zehaztuko da errelebolariak eta ordezkatzeko langileak nola bete beharko duten lanaldia. Dena den, ondorengoak izango dira errelebatuak eman beharko dituen zerbitzuak betetzeko funtsezko irizpideak, salbuespenak kenduta: urteko lanaldi osoa denboraldi batean metatu izana, zerbitzuak haren ikastetxean eman izana eta dagozkion lanak bete izana. Eskaerekin batera jardun metatu hori noiz eta nola beteko den jakinarazten duen proposamena auzetuko da – ikastetxearen onespenerekin-. Batzorde Paritarioak ezarritako jardunak jarraituko ditu.

4.- EPEAK

Martxoaren 1etik Maiatzaren 13ra, Lurralde bakoitzeko Ordezkaritzetan eskaerak egiteko epea irekita geratzen da. Eskaerak, honekin batera doan ereduari egin beharko dira eta balditzakotzak hartutako ziurtagiriarekin etorri beharko dute.



5.- IRAUPENA

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak 65 urte betetzen dituen unean.

6.- IZANGAIAK

Ordezkapenak egiteko kolektiboaren araudiak zehaztuko du txandakako kontratuak betetzeko sistema.

7.- ORDAINSARIAK

Lan egiten den kategoriarentzat hitzarmen kolektiboan aitortzen diren ordainsarien zati proportzionala izango dira Administrazioak erretiratu partzialari eta errelebolariari ordainduko dizkien ordainsariak, urte bakoitzean aplikatzen diren soldata-gehikuntzekin.

Urteko ordainsaria hamabi hilabetetan eta bi aparteko ordainketatan hainbanatuko da.

Erretiroaren saria ondoren esan bezala ordainduko zaio, dagokionari: portzentai bat erretiro partziala hartzen den unean eta gainontzekoa 65 urte betetzen direnean.

8.- OINARRI HAUEN GARAPEN ETA INTERPRETAZIOA.

Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiborako Batzorde Paritarioak interpretatuko ditu oinarri hauek, baita bere unean onartu eta garatu ahal izango direnak ere.

Vitoria Gasteiz, 2011ko martxoaren 29a.